


UR JARDUERETAKO ARRISKUAK ETA SEGURTASUN AHOLKUAK

OROKORREAN



KANTAURI ITSASOA METEOROLOGIA ALDAKORRA

- ✓ Kontsulta ezazu itsas meteoaren iragarpena.
- ✓ Adi galernarekin! Bat-bateko denborale bortitza, haize indartsu eta olatu zakarrek.

ITSASOAREN EGOERA: OLATUAK ETA KORRONTEAK

- Begiratu hondartzetako banderak:



Baimenduta Kontuz Debekatuta Marmokak K. gunea

- ✓ Errespetatu bainurako eta kirolerako eremu mugatuak.
- ✓ Jarraitu sorosleen jarraibideei.
- ✓ Behatu olatuak, identifikatu korronteak eta horien ihesbideak (Fig. 1)
- ✓ Arretaz jokatu Zurriolako hondartzan! (Fig. 2)

ITSASOKO FAUNA: marmokak, mikroalgak, karabela portugesak, etab.

- ✓ Kontuz! Horrelako animalien presentzia bada, informa zaitez uretara sartu aurretik.



ARAZOAK IZANEZ GERO

- ✓ Lasai egon.
- ✓ Ez gerturatu arroak dauden lekuetara, batez ere olatuek hausten badute.
- ✓ Laguntza eskatu, besoak astindu ezker-eskuin (Fig. 4)
- ✓ Larrialdi zerbitzukoak laguntzera joango zaizkizu.

PADDLE ETA PIRAGUISMOA



URETARA SARTU BAINO LEHEN

- ✓ Jarri txalekoa.
- ✓ Erabili taularekin lotzen zaituen kordela (leash/ inbentua).
- ✓ Txilibitua eraman.
- ✓ Eraman telefonoa edo/eta irrati eramangarria.


LURREKO HAIZEA (HEGO HAIZEA EUSKAL HERRIAN)

- ✓ Lurrerako itzulera nola egin kontuan eduki.
- ✓ Zure konfiantzazko bati egingo duzun ibilbidearen eta iraupenaren berri eman.

ITSASOKO IGERIKETA



- ✓ Igeriketa modu seguru batean egiteko, hoberena balizak dauden eremuetan egitea da.
- ✓ Bainurako eremutatik kanpo, itsasontzien arriskua dela-eta erabil itzazu oso ikusgarriak diren neoprenozko jantziak, txanoa eta buia.



- ✓ Oso ikusgarria den txanoa.
- ✓ Oso ikusgarria den buia.



Fig.4



Fig.3

BAINUA



URETARA SALTO BATEZ MURGILTZEA OSO ARRISKUTSUA IZAN LITEKE!

- ✓ EZ egin buruz saltorik.
- ✓ Errespetatu uretara salto batez murgiltzea debekatzen duten seinaleak.
- ✓ Egiaztatu uraren sakonera.
- ✓ Kontuz marea aldaketekin!



EZ ZAITEZ URETARA SARTU:

- ✓ Alkohola edo drogak kontsumitu badituzu edo ondoeza baduzu.



ONDARRETA ETA KONTXA HONDARTZEN ARTEKO PASABIDEA

- ✓ Itsasgoran edo olatuek hausten badute ez zaitez bertatik pasa.



HONDARTZATIK URETARA SARTU ETA IRTETEA

- ✓ Itzulerako korronteen indarra kontuan izan, itsaso barrura arrasta zaitzake eta.
- ✓ Kontuz haustura bertikaleko itsasertzeko olatuekin! Arriskutsuak dira.
- ✓ Zalentza baduzu, ez sartu uretara.

ITZULERAKO KORRONTEAK HARRAPATUZ GERO

- ✓ Ez egin igeri korrontearen kontra, izugarri nekatuko zara.
- ✓ Utzi korronteak indarra galtzen duen punturaino eramaten, edo trebe eta indartsu ikusten baduzu zeure burua, mugitu olatuak dauden aldeetara.
- ✓ Hartu olatuak, itsasertzera eramango zaituzte.
- ✓ Laguntza eskatu, besoak astindu eta larrialdi zerbitzukoak laguntzera joango zaizkizu. (Fig. 4)
- ✓ Flotazio-jarrera hartu: ahoz gora, burua atzerantz, besoak eta zangoak irekita; lasai mantendu horrela! (Fig. 3)



Fig.1 Itzulera korrontea eta ihesbidea




Fig.2 Ohiko korronteen eskema Zurriola hondartza

SURF, BODYBOARDING, BODYSURF



URETARA SARTU AURRETIK

- ✓ Itsaso egoera kontuan hartuta, kirolerako gaitasun maila nahikoa duzula ziurtatu.
- ✓ Korronteak eta olatuen ezaugarriak aztertu. (Fig. 1 eta 2)
- ✓ Adi! Olatu tarte luzeekin ematen diren barealdiak engainagarriak izan daitezke.
- ✓ Surf edo bodyboard oholaren kordela ondo dagoela ziurtatu.
- ✓ Kirola egiteko, bandera gorri/urdinak dauden guneak erabili.
- ✓ Seguru eta babestuta sentitzen zaren lekutan ibili.

URETAN

- ✓ Errespetatu ur kirolen kodeak eta olatuak hartzeko lehenetasunak.
- ✓ Zure ibilbidean surflaririk bada, ez hartu olatua.
- ✓ Surflari bat zuregana joaten bada, murgil zaitez.

ARAZOREN BAT BADUZU

- ✓ Eseri taulan, besoak astinduta laguntza eskatu eta larrialdi zerbitzukoak laguntzera joango zaizkizu.
- ✓ Ez askatu ohola, hondartzerantz begira jarri, oholean etzan zaitez gogor helduta eta utzi olatuek ur ertzera eramaten.

SOROSPENA ETA LAGUNTZA

- ✓ Norbait arazoekin ikusten baduzu gerturatu eta lagundu. Ez hartu zure gain kontrola ditzakezun baino arrisku gehiago.

